



"Beste ekonomia bat martxan dago" IV. jardunaldiak

Madril, 2017ko maiatzaren 5a eta 6a

Jardunaldiekin zer lortu nahi dugun

la hamarkada bat igaro da nazioarteko krisi ekonomiko larria hasi zenetik, eta, gaur egun gauden egoeran, krisia eragin zuten arazo handiak konpondu beharrean, larriago egin dira; horren adibide dira desparekotasunak areagotzea eta berezko desegonkortasuna duen finantza-sistemaren funtzionamendu hipertrofiatua. Krisi ekonomikoaren kudeaketak krisiaren jatorrian zeuden eragileak, tresnak eta praktikak indartu ditu.

Urte asko igaro dira, eta, urte horietan, krisia gainditzeko ahaletzeko proposatu diren erantzun politikoak nabarmen izan dira elite ekonomikoen interesen aldekoak. Gaur egungo nazioarteko egoera salbuespenetzkoa da, goraka egiten ari baita krisitik ateratzeko nazionalismoan, xenofobian eta bazterketan oinarritzea proposatzen duen eskuin-muturra.

Eta une politikoa bezain salbuespenetzkoa da ekonomiak diziplina gisa bizi duen egoera (akademiak, esaterako), oraindik krisira eraman gintuzten liburuak berriro argitaratzen jarraitzen dute eta.

Historiaren bidegurutze horretan, azken hamarkadetako eredu neoliberal muga historiko larriak izaten ari dela dirudi, eta etorkizunerako zer gizarte-eredu nahi dugun da benetako eztabaida-gaia. Eta, nola ez, baita gaur egunerako zer gizarte-eredu nahi dugun ere.

Jardunaldietan zehar, batetik, gai horiez guztiez eztabaidatu ahal izango dugu; bestetik, zenbait elementutan (hala nola demokrazia, berdintasuna eta askatasuna) oinarritutako gizarte-eredua eraikitzeko zer euskarri behar diren hausnartzeko aukera izango dugu. Azken batean, erdigunean gure bizitza eta gure bizitzaren ingurune naturala jarrita eraiki beharko litzateke gizarte-eredu hori.

Jardunaldi hauek zera izatea nahi genuke: ikuspegi kritiko batean oinarrituta, ekonomia gizartearen zerbitzura jartzearen alde egiten duten zenbait pertsona elkartzeko gune bat, eta, horrekin batera, elkarrizketan eta eztabaidan aritzeko gune bat ere bai. Atzean inor utzi gabe, noski.

Norentzat



Jardunaldiak egungoa ez den beste eredu batzuk interesatzen zaizkien edo lantzen ari diren pertsonentzat dira. 118 pertsonak parte hartu ahal izango dute aurrez aurre, eta 80 plaza gordeko dira unibertsitateko ikasleentzat.

Jardunaldien programa

2017ko maiatzaren 5a, ostirala

**Irekiera-saioa
18:00 – 19:30**

Krisiaren muina argitzea; ordezko ereduak sentitzea eta pentsatzea
Eduardo Gudynas. CLAES.

**Ekonomia aldatzeko
ipuin bat**

19:30 – 20:00

Ekonomia aldatzeko ipuin bat

Los Econoplastas



2017ko maiatzaren 6a, larunbata	
<p>Desparekotasunak, boterea eta demokraziak</p> <p>11:30-13:30</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Pablo Martínez Osés. La Mundial kolektiboa. ▪ Carmen Crespo Ordoñez. ▪ Gonzalo Fernández Ortiz de Zárate. Latinoamerikako Multinazionalen Behatokia (OMAL). <p>Eztabaida</p>
Bazkaria	
<p>Gure gizarte-eredua berriz pentsatzea</p> <p>16:00-18:00</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Alicia García Ruiz. Karlos III.a Unibertsitatea. ▪ Luis González Reyes, Ekologistak martxan. <p>Eztabaida</p>
Amaiera-saioa	
<p>Ekonomia berriz pentsatzea</p> <p>18:00-19:30</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Laura de la Villa Alemán. Ikertzailea. Genevako Unibertsitatea. ▪ Ricardo Molero Simarro. Ekonomialaria. ▪ Mercedes de Luis López. EcoNuestra Elkarteko kidea. <p>Eztabaida</p>